



GALTZONTZILO
GALDUAREN BILA

Antton Dueso

*Miel Anjel Elustondoren moldapena
Egilearen marrazkiak*

Desclée De Brouwer



1. Duxa hartu eta segi aurrera



Lehenengo ur tanta epelak gandorreko txi-
ma arroxetatik behera irristaka hasi zitzaiz-
kion eta hotzikara sentitu zuen, bizkarrezu-
rretik ipurtzuloraino. Ura besterik ez zen,
baina urtero gauza bera sentitzen zuen,
eguntalako itomena. Itomena, jakina, izan
zitekeen ohitura faltagatik -beharbada-, edo
urpeko betaurreko aldrebek haiengatik -nork
jakin-. Izan ere, 365 egunetik behin janzten
zituen urpeko betaurreko haiek, dutxatu egin
behar eta badaezpada ere, aizue! Hortaz, ez
zen nolana hikoia eguna. Inondik ere, egun



seinalea zuen Punkik. Urtean behin betetzen ditugu urteak, urtean behin biltzen da familia dena Eguberrietan, eta urtean behin jarri ohi da dutxapean gure laguna.


Egun hura bi aldiz zen berezia, goizeko hamarretan txertoa jarri behar zioten eta Osasun Zentroan. Eta ahal zuen ongien disimulatzen saiatu arren, kezka sortarazi zion txertoa hartu beharrak; begirik ere apenas bildu zuen gauean. Izan ere, inori ere ez zaio gustatzen txista egin diezaguten ipurdian. Akabo, bada! Horregatik, eta oportretan zenean eguerdira arte jaikitzeke ohiturarik ez bazuen ere, goizeko zazpiak orduko ari zuen etxe hartan zarata, buila eta musika hots handia.


—Punki, jaitsizak musika demonio hori hire aita eta arreba esnatu baino lehen!

—Denbora da esnatu nauenetik!

—Ni ere aspaldi esnatu nau! Gure seme arraio honek egun osorako burukomin galanta egin dit oraintxe!

Bi minutuz dutxako urak zorua zipristindu zuen, han eta hemen putzuak eraginez. Nahiko izan ziren bi minutu ondoko ispilua eta





hormako baldosa denak blai eginda uzteko. Irakurleak pentsatuko du bi minutu ez dela ezer -epe laburra dela oso, alegia-, baina Punkiri dagokionez 120 segundo haiek eternalak gertatzen zitzaizkion. Behin baino gehiagotan pentsatu zuen denbora gutxiagorekin aski izango zuela.

Logelako leihoa erdi irekita zuen Punkik. Uztaila zen eta goiza eguzkitsua zetorren, zoragarri. Zeru urdinean, kolore ederreko txori politak. Ederra izango zen haien txio-txioa aditzea, baina ez zen modurik. Ez zen modurik disko konpakto harengatik: Negu Gorriak punk taldearen musika hots handiak galarazten zuen txorien txio-txio alaia batere aditzea.

—Ohe ganean duk arropa garbia! Eta, Jainkoarren, ken ezak musika malapartatu hori behingoagatik!



Lelo hura berrogeita hamargarren aldiz entzun baino lehen «Euskalduna naiz eta harro nagooo ... !», musika kateako stop tekla zapaldu zuen Punkik eta kitto musika! Estibalizko monasterioko isiltasuna ematen zuen: hura bakea etxe hartan, eta etxepean! Txorien txio-txiorik ez zen aditzen hala ere, baten bat autoa arrankatu ezinik ari zelako. Dena den, auzo batek baino gehiagok lo egin ahal izan zuen berriro... etenalditxo hura eta gero, jakina.

Ohea deseginda zegoen. Eta haren gainean, zabal-zabal paraturik Punkiren zain, kolore biziko bermudak eta kamiseta bat, are kromatismo biziagoak zituen. Baina, guztien





gainetik, galtzontziloak ziren nabarmenenak, elurra bezain zuri, edo zuriago: begiak ere zimurtu beharra zegoen galtzontzilo zuri haiei begiratzeko. Izan ere, egun hartan ipurdia erakustera zihoan Punki Osasun Zentroan, eta xehetasun guzti-guztiak zaindu beharra zegoen. Ez zuen barregarri geratu nahi! Emakumezko erizain bat irudikatzen zuen, ilea hori-hori, begiak urdin-urdin eta kolkoa zabal-zabal, irri gaiztoa eginez jeringa handi bat -are orratz handiagoa muturrean-, zuela eskuan.

Armairuaren ispilu aurrean jarri zen eta eskuoihala erortzen utzi zuen Punkik. Hexur eta axal zen, eskeleto huts, zango mehe -batean, Moisesen denborako tiritu zuela, gainerra-, baina berak gorputz lerdena ikusi zuen, gihartsua eta, begiak ongi zorroz-tuz gero, zakila eder bat. Lehenago edo geroago, txoratu behar zituen emakumeak zakila eder hark. Jarrera horretan zegoela -gorputz «gihartsua» bere buruari ispiluan erakusten, alegia-, non ikusten duen ispiluan bertan bere arreba ate zirrikitutik begira duela, barrez-barrez.